

Euskadiko Parke Teknologikoak Bilboko Zorrotzaurreko Campusaren egoitzako obrak hasiko ditu

- **Bilboko Campusaren egoitza eta lantzaren punta izango dena egokitzeko lanek markatzen dute Zorrotzaurreko penintsula industrial zaharra uharte berritzaile eta dinamiko bihurtuko duen proiektuaren garapenaren hasiera.**
- **Eraikin berriak, enpresa eta proiektu teknologiko aurreratueterako eraikitako 5.300 m² eskainiko ditu. Egungo pabiloiaren jatorrizko estetikarekin berreraikiko da, eta horri beste bolumetria bat erantsiko zaio mendebaldeko fatxadan.**
- **Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak 2022ko martxoan Euskadiko Parke Teknologikoaren Bilboko Campusa sortzeko sinatu zuten hitzarmenak hirugarren sektoreko 106.000 m²-ko azalera garatzea aurreikusten du, uhartearen bi puntetan banatuta.**

Euskadiko Parke Teknologikoko Bilboko Campusa azpiegiturak eraikitzeko obrak berehala hasteari aurre egiteko ari da prestatzen, Tarabusi enpresa zegoen eta Parkearen (Zorrotzaurre) Bilboko egoitza izango den eraikina berreraikitzeke lanen lizitazioari argi berdea eman ondoren. Eraikin berriak egungo pabiloiaren estetika errespetatuko du eta mendebaldeko fatxadan eraikin bat erantsiko du.

BAIC - Adimen Artifizialeko Euskal Zentroa ere hartuko duen eraikin berria Bilboko Campusaren lantzaren punta izango da. 5.300 m² eskainiko ditu enpresentzat eta teknologia aurreratuko proiektuentzat, honela banatuta: 47 aparkaleku izango dituen sotoko solairua, erabilera anitzeko aretoak hartuko dituen 450 m²ko beheko solairua, eta goiko hiru solairu, bakoitza 750m² baino gehiagorekin hirugarren sektorerako.

Espazioen banaketa horretan garrantzi berezia izango du jatorrizko pabiloiaren mendebaldeko fatxadari atxikitako bolumetria berriak. Haren barruko eta kanpoko estalduran lengoia bera bilatuko da, arkitektura bioklimatiko bezalako kontzeptuen aldeko apustua eginez. Ondorioz, Bilboko Campusaren egoitza eraikin berrasmatu, moderno eta funtzionala izango da.

Eraikina berreraikitzea izango da, halaber, Bilboko Campusa osorik gauzatzeko lehen pausoa. Zorrotzaurre uhartearen bi puntetan bereizitako bi gune hartuko ditu, udal-titulartasuneko edo titulartasun publikoko eraikinekin. **Iparraldeko Puntan**, Campusak hirugarren sektoreko 46.000 m²-ko eraikigarritasuna izango du, 4 lursailetan banatuta: Tarabusi enpresa zaharraren eraikina dagoen RZ-17; lehendik dauden eta Euskadiko Parke Teknologikoak berreraikiko dituen beste bi eraikin (Lancor eta Consoni) dituen RZ-10; eta RZ-9 eta RZ-7 lurzatiak. **Hegoaldeko Puntan**, bestalde, hirugarren sektoreko 60.000 m²-ko eraikigarritasuna izatea aurreikusten da, 3 lursailetan banatuta: RD-11, RD-12 eta RD-16. Lurzati horietan 9 eta 17 solairu arteko 5 eraikin berri egingo dira.

Enpresa-espazioen gero eta eskaera handiagoa

Bilboko Campus berritzailearen garapenaren jatorria Bilboko Udalak eta Euskadiko Parke Teknologikoak 2022ko martxoan sinatutako hitzarmena da. Hitzarmen horretan, hasiera batean, RZ-10 eta RD-12 lurzatiak sartzen ziren. Hitzarmen hori urte bereko urrian finkatu zen, eranskin bat gehituz. Eranskin horren bidez RZ-9 eta RZ-17 lurzatiak gehitu ziren. Une honetan RZ-7, RD-11 eta RD-16 lurzatiak hitzartzeko daude.

Akordioan adierazi zen bezala, bi erakunde sinatzaileen ustez Bilboko Campus berria, enpresa-egituraren hazkundera bultzatuko duen ekosistema sektorial bat sortzeko gai izango den Bizkaiko ekonomiaren etorkizuneko proiektu bultzatzaileetakoa izango da.

Horrela, Bilboko Campusak Bizkaiko hiriburuan dagoen espazio-eskaera handiari erantzuteko aukera emango du, enpresek Zorrotzaurren talentu gaztea erakartzeko eta fidelizatzeko aukera handia ikusten baitute. Aipatzekoa da duela gutxi Estatuko hiri nagusietan okupazioari eta bulego-eskariari buruz egindako azterlan baten arabera, Bilbon gaur egun 7.000 m²-ko eskaria dagoela espazio erabilgarria aurkitzen ez duten enpresen aldetik, eta hori Zorrotzaurreko proiektua abian jartzean baino ez dela arinduko.

Ildo horretan, Euskadiko Parke Teknologikoak Zorrotzaurren koka daitezkeen enpresen eta proiektuen merkaturatze selektiboa ekarriko du, ikerketarekin eta prestakuntzarekin lotutako sektore aurreratuetako enpresen eta zentro teknologikoen lokalizazioaren aldeko apustua eginez.